

KONTSUMO IRAUNKORRA,

giza ekintzaren eta Planetaren
arteko oreka

kontsumo iraunkorra
kontsumo iraunkorra
kontsumo iraunkorra



KONTSUMO IRAUNKORRAK tresna ekonomikoaren eta arau-tresnen erabilera eraginkorra, gizarte-egokitasuna eta ingurumenarekiko errespetua ekartzen du.

Finean, produkzio-enpresek, enpresa banatzaileek, Administrazioak, eragile ikertzaileek eta kontsumitzaileek *konponbide bideragarriak bilatzea gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arloko desoreketarako.*

GAUR EGUN KONTSUMITZEKO ditugun MODUEI buruzko **BAIEZTAPEN** batzuk

- ✓ Ondasun eta/edo zerbitzu batzuk erabiliz, giza premiak asebetetzeko ahaleginak egiten ditugu.

Nolanahi ere, gure gizarteak gaur egun kontsumitzeko dituen moduen ezaugarria **KONTSUMISMOA** da, hau da, **BETI BEHARREZKOAK EZ DIREN ondasunak eskuratzeko, gastatzeko edo kontsumitzeko** joera dugu.

Gehiegizko eta kontrolrik gabeko kontsumoa herrialde industrializatu eta aberatsetan egiten da, **HERRIALDE POBREETAN, ordea, PERTSONEK, BATZUETAN, EZ DITUZTE EZTA ELIKADURAREN, OSASUNAREN, SEGURTASUNAREN ETA ANTZEKOEN INGURUKO OINARRIZKO PREMIAK ERE BETETZEN.**



- ✓ Gure **INGURUNE NATURALAK** behar dugun oro ematen digu.

Bai kontsumitzen ditugun produktuak fabrikatzeko, bai zerbitzuak erabiltzeko (ura, elektrizitatea, garraioa eta abar) lehengaiak behar ditugu, hala nola mineralak, ura, landareak eta abar. Horiek guztiak naturak ematen dizkigun baliabideak dira.

Jakin behar dugu gure **BALIABIDE NATURALAK** mugatuak direla eta baliabide horiek berriz sortzeko Lurrak behar duen erritmoa baino erritmo azkarragoan kontsumitzen ditugula.

Ezin dugu Natura engainatu, baina ados jar gaitzke harekin.

Albert Einstein

✓ Gure gizarteari esker kontsumo-ondasun ugari lor ditza-kegu.

Era berean, gure bizimoduak eta kontsumitzeko moduak **ERABILI ETA BOTATZEKO KULTURA** rako joera du, eta kultura horretan gero eta ugariagoak dira erabilera bakarreko eta gehiegizko bilgarriak dituzten produktuak.

Gure kontsumismoak IRAUNKORRAK EZ DIREN KONTSUMO ETA PRODUKZIO JARRAIBIDEAK sortzen ditu.

AZTARNA EKOLOGIKOA: pertsona bakoitzak kontsumitzen dituen ondasunak produzitzeko eta sortzen dituen hondakinak xurgatzeko behar den lursailen kopurua, hektareatan, neurtzen duen adierazlea.

Informazio gehiagorako:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa”

www.ihobe.net



Ba al zenekien...

...planetan bizi diren pertsona guztiek EAEko kontsumo-jarrai- bide berak jarraituko balituzte biologikoki produktiboa den Planetaren azalerak gaur egun duguna baino 2,5 handiagoa izan beharko lukeela?

“Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa”, 2005

Hazkunde ekonomikoak eta baliabideen erabilerak ez dute zertan lotuta egon.

✓ IRAUNKORRA EZ DEN KONTSUMOA herrialde garatueta- n gertatzen da



Ba al zenekien...

...Amerikako iparraldean eta European bizi diren pertsonen % 12 munduko kontsumoaren % 60ren erantzule dela?

“Munduko egoerari buruzko txostena, 2004”, Worldwatch Institutua

Nolanahi ere, iraunkorra ez den kontsumoaren ingurumen- eta gizarte- arloko ondorioek PLANETA OSOAN ERAGITEN DUTE.

Gogoratu behar dugu ingurune naturala ez dela egungo belaunaldien ondare eskusiboa, ezta kontsumo-gizartea garatzen duten herrialdeena ere.

Garapen iraunkorra pertsonen egungo premiak asebetetzen dituen da, etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asebetetzeko duten gaitasuna estuasunean jarri gabe.

“Brundtland txostena”, 1987

**IRAUNKORTASUNAK ELKARTASUNA ekartzen du,
bai beste herrialde batzuekiko,
bai etorkizuneko belaunaldienganakoa.**



Ba al duzu **ERANTZUNIK**
galdera hauetarako?

- Nire erosketak egiazko premiak oinarri hartuta egiten al ditut?
- Ba al dakit zein diren gehiegizko produkzioaren gizarte-arloko (gizarte-desberdintasunak, lan-ustiapena eta abar) eta ingurumen-arloko ondorioak?
- Nahitaezkoa ez den kontsumoa gutxitzeak hobetu al dezake planetaren bizi-kalitatea?
- Energia aurrezteko jarraibideak eta baliabideak aplikatzeak aurrezte ekonomikoa sustatzen du. Hazi al gaitzke ekonomikoki gure baliabide naturalak alferrik galdu gabe?
- Nire ustez sor al nezake benetan sortzen ditudan hondakinak baino hondakin gutxiago?

Zenbait esaldik gai horri buruzko gogoeta egiten lagunduko digute...



Ba al zenekien...

...Planetako garapen iraunkorra oso mehatxatuta dagoela munduko biztanleriaren bosten batek arduragabe kontsumitzen duelako, horren ondoriozko baliabide naturalen gehiegizko ustiakearekin?

“Zero Pobrezia plataformaren aldarrikapena”

Lurra ez da gure gurasoen jaraunspena, gure seme-alaben mailegua baizik.

Indiar atsotitza

Bi segundotik behin futbol-zelai baten pareko baso-eremu bat botatzen da.

Ingurumen Ministerioa, 2005

Mendebaldean 4.000 milioi dolar gehiago gastatzen ditu itsas bidaietan garapen-bidean dauden herrialdeetan ura edangarri bihurtzen baino.

“Munduko egoerari buruzko txostena, 2004”, Worldwatch Institutua

Benetako gizarte-aurrerapena ez da premiak handitzea, baizik eta nahita gutxitzea; baina horretarako apalak izan behar dugu.

Mahatma Gandhi

IRAUNKORTASUNA, erantzukizun-kontua

Iraunkorrak ez diren gure kontsumo-jarraibideek produktuen **produktio masiboa** eragiten dute, eta horrek **ingurumena asko hondatzea** eragiten du.



Deforestazioa



Lurzoruak hondatzea



Itsasoak eta ibaiak kutsatzea eta itsasoko fauna eta flora desagertzea



Euri azidoa eta lurra berotzea



Lurra babesten duen ozono-geruza hondatzea

ARRAZOIAK

Zura lortzeko eta **produktzioarako eta kontsumorako** azientzaren-tzako bazka-eremuak sortzeko zuhaitz gehiegi botatzea.

Substantzia kimiko gehiegi erabiltzea, kontrol gabeko hondakinak uztea eta lurra berritzeko zikloak ez errespetatzea **etengabe ustiatzen delako**.

Hondakinak botatzea, kutsadura eta **arrantzaren gehiegizko ustiaketa**.

Ibilgailuek eta fabrikek gas kutsatzaileak botatzea.

Batez ere **erabili eta botatzeko produktuak** (edalontziak eta platerak, esaterako) **aerosolentzako latazko propulstazai-leak eta disolbatzaileak** fabrikatzeko erabiltzen diren konposatuak botatzea.

Ingurumenaren hondatze hori denok ezagutzen dugun errealitatea da

ALDAKETA KLIMATIKOA ere, neurri handi batean, gas kutsatzaileak botatzearen ondoriozko ingurumen-eraginak bizkortu duena, egunez egun atzematen ari garen zerbait da:

- ✓ Temperaturen igoera
- ✓ Itsasoaren mailaren igoera
- ✓ Muturreko gehieneko tenperaturetako egunak maizago izatea
- ✓ Euriak gutxitzea...



Ba al zenekien...

...honako hauek direla aldaketa klimatikoaren ondorioz eskualde bakoitzean epe motzean sortuko diren arrisku nagusiak honako hauek direla?:

- Afrika: nutrizio desegokia igo egingo da uztak gutxitzearen ondorioz.
- Asia: gaixotasun batzuekin lotutako heriotza-tasa hazi egingo da uraren zikloak aldatu egingo direlako.
- Europa: kontinentearen hegoaldean arriskuak igo egingo dira bero-boladen eta baso-suteen ondorioz, eta iparraldean uholde-mehatxuen ondorioz.
- Latinoamerika: gosea hazi egingo da produkzioak gutxitzearen ondorioz.
- Ipar Amerika: bero-boladen maiztasuna, intentsitatea eta iraupena hazi egingo da.

Oso kontsumista den gizarte batean ondasunen kontsumitzaile eta zerbitzuen erabiltzaile garen aldetik, GURE ESKU, HOTS, GURE EGUNEROKO ERRUTINAREN ESKU DAGO BIZITZEKO ETA INGURUMEN ETA GIZARTE ARLOKO KONTSUMORAKO JARRAIBIDE IRAUNKOR BATZUK SUSTATZEA.

Gure ingurune naturala bizitzarako nahitaezko elementua da. Iraunkorra ez den gure kontsumoa bideratu behar dugu, eta ongizatea eta oreka lortu behar ditugu gure eskura dauzkagun baliabide naturalez gehiegi baliatu gabe eta ahalik eta hondakin gutxien sortuz.

Kontsumitzaileok eta erabiltzaileok dugu **KONTSUMO IRAUNKORRA** gauzatzeko **GAKOA**:

- * Gure kontsumoa **MURRIZTEA**, benetako premietan oinarrituta.
- * **INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN** produktuak eta zerbitzuak **SUSTATZEA**.
- * **BERRIZ ERABILTZEA ETA BIRZIKLATZEA**.

Erosi, kontsumitu eta bota.

**ZENBAT ETA GUTXIAGO
ORDUAN ETA HOBETO**✓ **ZER EROSI** erabakitzerakoan.

Lehendabizi,
BENETAN BEHAR DUGUNARI
 buruzko
GOGOETA EGIN BEHAR DUGU

Eta hortik aurrera:

- ▶ **Ahal den neurrian, erosketa egiteko autoz egiten den ibilbidea LABURTU EGIN BEHAR DUGU.** Aukeratu erosketa hurbil dauden dendetan egitea.
- ▶ Supermerkatuetan ematen dizkizuten **plastikozko zorroen erabilera GUTXITU BEHAR DUGU.** Erabili oihalezko poltsak edo erosketetarako orgatxoak.
- ▶ Ahal den neurrian, **EZ DUGU EROSI BEHAR** erabili eta botatzeko **produkturik** (latak, paperezko ezpainzapiak eta mukizapiak, plastikozko edalontziak, platerak, mahai-tresnak, eta abar).
- ▶ **GEHIEGIZKO PAKETATUA SAIHESTU BEHAR DUZU,** eta ahal duzunean, erosi produktua soltean, edo bestela, gehiegizkoak ez diren eta erraz birzikla daitezkeen materialez eginak dauden ontzietan (papera, kartoia, beira) dauden produktuak erosi. Saihestu ahalik eta gehien poliestireno hedatuko plastikoak eta erretiluak (ez dira berreskuragarriak).
- ▶ Ahalik eta gehien **GUTXITU BEHAR DITUGU NAHITAEZKOAK EZ DIREN ESTRAK:** opariak, 2X1...



**BENETAN BEHAR EZ DUGUN PRODUKTU
 BAT EROSTEN BADUGU, HONDAKIN
 bihurtuko da epe laburrean.**

- ▶ **INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN** produktuak eta zerbitzuak **SUSTATU BEHAR DITUGU.**

Ingurumena errespetatzen duten protokoloak betetzen dituzten enpresek ziurtagiriak lortzen dituzte. Ziurtagiri horiek bermatzen digute produktuen eta zerbitzuen bizitza-zikloan oinarriko irizpideak ezarri direla kontsumoaren eragina txikiena izan dadin ingurumenerako.


Ziurtapen horiek identifikatzeko, **IKURRAK** bilatu behar ditugu **ETIKETAN**. Hona hemen zenbait adibide:



ZUREZKO PRODUKTUAK. Enpresa ekoizleak ingurumenerako **baso-kudeaketa iraunkor onargarria**, sozialki onuragarria eta ekonomiko-ki bideragarria sustatzen du.



APARATU ELEKTRIKOAK. Monitore, ordenagailu, sistema eragile, eskaner, fotokopiagailu eta fax-aparatueterako. **Energia aurrezteko sistema bat dute**, eta sistema horri esker, aparatu horiek atsedeen-egoeran egon daitezke erabiltzen ez direnean denbora-tarte jakin bat igarotakoan.



ETXETRESNA ELEKTRIKOAK. Energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ematen digute (energia-kontsumoa, ur-kontsumoa eta abar). Prestazio berak emanez, **energia gutxiago** kontsumituko duen eta eraginkorragoa izango den etxetresna elektrikoa aukeratzen lagunduko digu.



EHUNGINTZA PRODUKTUAK. Ehungintza-produktuen eraldaketa-prozesu osoan, azken erabilitzailearengana iritsi arte, **produktu horietan substantzia kaltegarriak ez izatea bermatzen du.**



Europako Batasunaren Ikur Ofiziala, produktuen **produktzioak ingurumena ahalik eta gehien errespetatu duela aitortzen duena.**



Produktuen edo zerbitzuen **bizitza-zikloak iraun duen bitartean ingurumenean eragin txikiena** izan duten produktuak edo zerbitzuak bereizteko bereizgarria: erabilitako lehengaiak, diseinua, fabrikazioa, erabilera eta erabiltzarritasunaldia amaitu osteko deuseztatzea.

✓ KONTSUMOAK irauten duen bitartean.

Batez ere,
BEHARREZKOA DENA SOILIK ERABILI BEHAR DA
 eta **AURREZTEKO JARRAIBIDEAK APLIKATU BEHAR DIRA**

- ▶ **AHALIK ETA GEHIEN MURRIZTU BEHAR DA** ondasunen kontsumoa eta zerbitzuen erabilera (ura, argia, garraioa eta abar).
- ▶ **LORTUTAKO ONDASUNAK OPTIMIZATU ETA ZAINDU BEHAR DIRA**, horrekin denboran iraun dezaten lortuko dugu. Produktuaren bermeei, konpontzeko zerbitzuari eta gutxieneko zaintzei buruzko informazioa lortzen badugu, produktuek baldintza hobekak izatea, **denbora gehiago irautea eta gutxiagotan ordezte**a lortuko dugu.

✓ Bota aurretik, **BERRERABILI**.

BERRERABILTZEA
EROSKETA BERRI BATEN ALTERNATIBA
 gisa

Edukiontzira botatzen ditugun material edo produktuak askok bigarren erabilera bat izan dezakete, jatorrizkoaren berdina edo desberdina. Produktuak edo horien ontziak berriz erabiltzeko modu asko daude:

- ▶ **Berriz erabil daitezke.** Esate baterako, ontziak, botilak edo poltsak berriz erabiltzea.
- ▶ **Jatorrian zuen erabilera ez den beste erabilera bat eman** diezaiekegu.
- ▶ Produktu bat berriz erabili ahal izango duten beste pertsona, erakunde edo elkarte bati **oparitu edo utz** diezaiokegu. Esate baterako, liburutegi, ostatu, talde kultural, ongintzazko elkarte bati eta abarri.
- ▶ **Maileguan eman dezakegu.** Norbaiti eska diezaiokegu produktu bat uztea erosi beharrik ez izateko.
- ▶ **Alokairua.** Alokairuak lehen kalitatezko produktuak bermatzen dizkigu denbora jakin baterako.
- ▶ **Bigarren eskuko produktuen dendetara sal dezakegu.**

✓ Azkenik, **BIRZIKLATZEA**.

BIRZIKLATZEA,
AZKEN AUKERA
 beti



Ba al zenekien...

...1.000 kilo egunkari-paper birziklatzeak 2.500 kilo karbono dioxido atmosferara isurtzea eragozten duela, 17 zuhaitz salbatzen dituela eta zabortegei batean hiru metro kubikoko eremua aurrezten duela?

<http://servicios.elcorreodigital.com/ekoplaneta/>

Erosten ditugun produktueta azaltzen diren **sinbolo askok** birziklapenari egiten diote erreferentzia. Honako informazio hau ematen dute:



Ontzi birziklagarria.



Material birziklagarritz produzituta dago, eta enpresa produktoreak ehuneko bat ordaintzen du hondakinak kudeatzeko sistemekin kolaboratzeko.












PET

Ontzi birziklagarria. Erdiko zenbakiak eta siglek adieraziko digute produktuek zer material plastikoz eginak dauden. Zenbat eta txikiagoa izan zenbakia, orduan eta handiagoa izango da produktuaren birziklagarritasun-balioa; 1 zenbakia da gehien birzikla daitekeena, eta 7 zenbakia gutxien birzikla daitekeena.

Produktu horiek guztiak birziklagarriak izan arren, birziklatzeko leku egoki batean uzten ez badira, ondorioak antzeko ezaugarriak dituzten baina ikur horiek ez dituzten produktuek eragiten dituzten ondorioak bezain larriak izango dira.

Ondoren, TAULA bat azalduko da; hor zehazten da **non utzi behar den hondakin bakoitza BIRZIKLATZEKO** edo kudeatzeko, eta gure ekintzekin ekologia- eta ingurumen-arloko zer onura lortzen ditugun:

EDUKIONTZIA	ZER BAI?	ZER EZ?	NOLA KUDEATZEN DA? ETA ZER ONURA DITU?
  	<ul style="list-style-type: none"> - Janari-hondakinak - Etxeko hondakin organikoa - Kortxoak, konpresak, gazak, lotura isaskorrak eta abar - Egunerik eta aldizkariak - Propaganda inprimatua - Galiera-kaxak, arrautzontziak eta abar - Paperezko poltsak - Esne-, ardo-, zuku-tetrabrikak eta abar - Edari-latak, kontserba-latak eta abar - Potoen edo jogurtaren estalki metalikoak - Ur-, olio-, libixa-, detergente-, xanpu-botilak eta abar - Jogurtuen ontziak - Plastikozko poltsak - Poltespanezko erretelak - Film-papera, zilarrezko papera 	<ul style="list-style-type: none"> - Papera, beira, olioak, plastikoa, elektronika eta abar - Tetrabrikak - Ptxihalalak - Paper plastifikatuak, ezkoztatuak edo metalizatuak - Plastikozko jostailuak - Sukaldeko tresneria, baldeak, biberoiak, fruta-kaxa eta abar - Latak ez diren metalezko objektuak: mahai-tresnak, lata-irrekitzekoa, irudiak, erremintak eta abar - Kristalak - Ateetako, autoetako eta leihoetako kristalak nahiz beirak eta abar - Bonbillak eta fluoreszenz-teak - Beirako gauzak: eteloniak, pitxarrak, kopak, irudiak eta abar - Etxeko zaborrak - Oihalak - Pinturak, berrizak, disolbatzaileak, aerosolak eta abar - Sendagaiak eta erradiografiak - Ospitaleetako eta enpresetako hondakinak - Papera eta kartoiak - Beira - Plastikozko ontziak 	<p>Zaborteagian uztea. Hondakin horien hartzitua elektrizitatea sortzeko erabiltzen da, biogasaren bitartez.</p> <p>Bidutako papera eta kartoiak sailkapen-planetara bidaltzen da, eta planta horietan materialen arabera bereizten da kontsumitzeko eta paper-industriari birziklitzeko. Paper birziklaturako produktzeko paper-berria produktzeko baino % 60 ur gutxiago eta % 75 emisio gutxiago behar da.</p> <p>Gailu bidutako hondakinak ontziak sailkatzeko hurbilen dagoen plantara bidaltzen dira, eta han materialen arabera bereizten dira birziklapen-enpresetara bidaltzeko. Plastikoa birziklaturako material berriak egiten dituzte, hala nola hodiak edo edukiontzia; aluminiozko latak, berriz ere latak egiteko balio dute (% 95 emisio gutxiago s ontzi); altzairuzko latak, altzairu-fabriketara bidaltzen dira; eta tetrabriketatik paperaren % 100 berreskuratzen da zelulosa fabrikatzeko.</p> <p>Tratamendu-plantetan beira zikina garbitu, birindu eta material desegokietatik eta erabili eta botatzeko materialeratik bereizten da, eta ontzi-fabriketako azken birziklatze-prozedurarako egokitzen da. Fabrika horiek arduratuko dira kiskalkina lortzeaz (beira berreskuratua, kutsagabea, garbia eta birindua). Birziklatzeko prozesua kiskalkina urtzearekin eta botila berriak fabrikatzearekin osatzen da.</p> <p>Hondakinak Garbigunetik hainbat zentrotara bidaltzen dira lantzeko eta birziklatzeko. Etxeko obreratik ateratzen diren obra-hondakinak, errausen, emorrren eta gainerako hondakinak kasuan, horiek guztiak zabortegi kontrolatuera eramaten dira han uzteko.</p> <p>Udalaren edo mankomunitatearen zerbitzua denez gero, bidutako hondakinak hondakin horiek kudeatzen dituzten enpresetara bidalko dira birzikla ditzaten.</p> <p>*Biltzeko hondakinak aldatu egin daitezke udalerrien arabera. Udalekin jarri behar da harremanetan hondakinak uzteko lekua, ordutegia eta zer hondakin utz daitekeen jakiteko.</p> <p>Saltzeko guneetako arduradunek kudeatu eta bidalko dute hondakin hori behar den lekuetan birziklitzeko.</p>
  	<ul style="list-style-type: none"> - Puntu berdea duten beirako ontzi guztiak - Edozein koloretako beirako botilak - Kosmetiko- eta perfume-flaskoak - Kontserba-flaskoak - Pilak - Etxeko obrak, obra-hondakinak, lurrik, errausiak, altzariak eta abar - Ibilgailuen eta frijituen olioak - Aparatu elektrikoak, etxetsua elektrikoak, bateriak eta abar - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Txatarra, bizikletak, harraskak, antenak eta abar - CDak, DVDak eta abar - Pilak - Frijituen olioak - Etxetsua elektriko handiak, altzariak eta abar - Libxa, disolbatzaileak, produktu toxikoak eta abar - Erradiografiak - Herbizidak, plagizidak eta abar - Pilak - Ibilgailuen olioak, olio aldatzean - Aparatu elektrikoak, bernak erostean - Etxetsua elektrikoak, aparatu berri bat erostean - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Sendagaiak - Pneumatikoak - Inprimagailuen tintak 	<ul style="list-style-type: none"> - Puntu berdea duten beirako ontzi guztiak - Edozein koloretako beirako botilak - Kosmetiko- eta perfume-flaskoak - Kontserba-flaskoak - Pilak - Etxeko obrak, obra-hondakinak, lurrik, errausiak, altzariak eta abar - Ibilgailuen eta frijituen olioak - Aparatu elektrikoak, etxetsua elektrikoak, bateriak eta abar - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Txatarra, bizikletak, harraskak, antenak eta abar - CDak, DVDak eta abar - Pilak - Frijituen olioak - Etxetsua elektriko handiak, altzariak eta abar - Libxa, disolbatzaileak, produktu toxikoak eta abar - Erradiografiak - Herbizidak, plagizidak eta abar - Pilak - Ibilgailuen olioak, olio aldatzean - Aparatu elektrikoak, bernak erostean - Etxetsua elektrikoak, aparatu berri bat erostean - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Sendagaiak - Pneumatikoak - Inprimagailuen tintak 	<p>Zaborteagian uztea. Hondakin horien hartzitua elektrizitatea sortzeko erabiltzen da, biogasaren bitartez.</p> <p>Bidutako papera eta kartoiak sailkapen-planetara bidaltzen da, eta planta horietan materialen arabera bereizten da kontsumitzeko eta paper-industriari birziklitzeko. Paper birziklaturako produktzeko paper-berria produktzeko baino % 60 ur gutxiago eta % 75 emisio gutxiago behar da.</p> <p>Gailu bidutako hondakinak ontziak sailkatzeko hurbilen dagoen plantara bidaltzen dira, eta han materialen arabera bereizten dira birziklapen-enpresetara bidaltzeko. Plastikoa birziklaturako material berriak egiten dituzte, hala nola hodiak edo edukiontzia; aluminiozko latak, berriz ere latak egiteko balio dute (% 95 emisio gutxiago s ontzi); altzairuzko latak, altzairu-fabriketara bidaltzen dira; eta tetrabriketatik paperaren % 100 berreskuratzen da zelulosa fabrikatzeko.</p> <p>Tratamendu-plantetan beira zikina garbitu, birindu eta material desegokietatik eta erabili eta botatzeko materialeratik bereizten da, eta ontzi-fabriketako azken birziklatze-prozedurarako egokitzen da. Fabrika horiek arduratuko dira kiskalkina lortzeaz (beira berreskuratua, kutsagabea, garbia eta birindua). Birziklatzeko prozesua kiskalkina urtzearekin eta botila berriak fabrikatzearekin osatzen da.</p> <p>Hondakinak Garbigunetik hainbat zentrotara bidaltzen dira lantzeko eta birziklatzeko. Etxeko obreratik ateratzen diren obra-hondakinak, errausen, emorrren eta gainerako hondakinak kasuan, horiek guztiak zabortegi kontrolatuera eramaten dira han uzteko.</p> <p>Udalaren edo mankomunitatearen zerbitzua denez gero, bidutako hondakinak hondakin horiek kudeatzen dituzten enpresetara bidalko dira birzikla ditzaten.</p> <p>*Biltzeko hondakinak aldatu egin daitezke udalerrien arabera. Udalekin jarri behar da harremanetan hondakinak uzteko lekua, ordutegia eta zer hondakin utz daitekeen jakiteko.</p> <p>Saltzeko guneetako arduradunek kudeatu eta bidalko dute hondakin hori behar den lekuetan birziklitzeko.</p>
  	<ul style="list-style-type: none"> - Puntu berdea duten beirako ontzi guztiak - Edozein koloretako beirako botilak - Kosmetiko- eta perfume-flaskoak - Kontserba-flaskoak - Pilak - Etxeko obrak, obra-hondakinak, lurrik, errausiak, altzariak eta abar - Ibilgailuen eta frijituen olioak - Aparatu elektrikoak, etxetsua elektrikoak, bateriak eta abar - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Txatarra, bizikletak, harraskak, antenak eta abar - CDak, DVDak eta abar - Pilak - Frijituen olioak - Etxetsua elektriko handiak, altzariak eta abar - Libxa, disolbatzaileak, produktu toxikoak eta abar - Erradiografiak - Herbizidak, plagizidak eta abar - Pilak - Ibilgailuen olioak, olio aldatzean - Aparatu elektrikoak, bernak erostean - Etxetsua elektrikoak, aparatu berri bat erostean - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Sendagaiak - Pneumatikoak - Inprimagailuen tintak 	<ul style="list-style-type: none"> - Puntu berdea duten beirako ontzi guztiak - Edozein koloretako beirako botilak - Kosmetiko- eta perfume-flaskoak - Kontserba-flaskoak - Pilak - Etxeko obrak, obra-hondakinak, lurrik, errausiak, altzariak eta abar - Ibilgailuen eta frijituen olioak - Aparatu elektrikoak, etxetsua elektrikoak, bateriak eta abar - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Txatarra, bizikletak, harraskak, antenak eta abar - CDak, DVDak eta abar - Pilak - Frijituen olioak - Etxetsua elektriko handiak, altzariak eta abar - Libxa, disolbatzaileak, produktu toxikoak eta abar - Erradiografiak - Herbizidak, plagizidak eta abar - Pilak - Ibilgailuen olioak, olio aldatzean - Aparatu elektrikoak, bernak erostean - Etxetsua elektrikoak, aparatu berri bat erostean - Bonbillak, fluoreszenz-teak eta abar - Sendagaiak - Pneumatikoak - Inprimagailuen tintak 	<p>Zaborteagian uztea. Hondakin horien hartzitua elektrizitatea sortzeko erabiltzen da, biogasaren bitartez.</p> <p>Bidutako papera eta kartoiak sailkapen-planetara bidaltzen da, eta planta horietan materialen arabera bereizten da kontsumitzeko eta paper-industriari birziklitzeko. Paper birziklaturako produktzeko paper-berria produktzeko baino % 60 ur gutxiago eta % 75 emisio gutxiago behar da.</p> <p>Gailu bidutako hondakinak ontziak sailkatzeko hurbilen dagoen plantara bidaltzen dira, eta han materialen arabera bereizten dira birziklapen-enpresetara bidaltzeko. Plastikoa birziklaturako material berriak egiten dituzte, hala nola hodiak edo edukiontzia; aluminiozko latak, berriz ere latak egiteko balio dute (% 95 emisio gutxiago s ontzi); altzairuzko latak, altzairu-fabriketara bidaltzen dira; eta tetrabriketatik paperaren % 100 berreskuratzen da zelulosa fabrikatzeko.</p> <p>Tratamendu-plantetan beira zikina garbitu, birindu eta material desegokietatik eta erabili eta botatzeko materialeratik bereizten da, eta ontzi-fabriketako azken birziklatze-prozedurarako egokitzen da. Fabrika horiek arduratuko dira kiskalkina lortzeaz (beira berreskuratua, kutsagabea, garbia eta birindua). Birziklatzeko prozesua kiskalkina urtzearekin eta botila berriak fabrikatzearekin osatzen da.</p> <p>Hondakinak Garbigunetik hainbat zentrotara bidaltzen dira lantzeko eta birziklatzeko. Etxeko obreratik ateratzen diren obra-hondakinak, errausen, emorrren eta gainerako hondakinak kasuan, horiek guztiak zabortegi kontrolatuera eramaten dira han uzteko.</p> <p>Udalaren edo mankomunitatearen zerbitzua denez gero, bidutako hondakinak hondakin horiek kudeatzen dituzten enpresetara bidalko dira birzikla ditzaten.</p> <p>*Biltzeko hondakinak aldatu egin daitezke udalerrien arabera. Udalekin jarri behar da harremanetan hondakinak uzteko lekua, ordutegia eta zer hondakin utz daitekeen jakiteko.</p> <p>Saltzeko guneetako arduradunek kudeatu eta bidalko dute hondakin hori behar den lekuetan birziklitzeko.</p>

URA, nahitaezko baliabidea

Gizateriarentzat

Ura
Gizateriarentzako baliabide beharrezkoenetako bat da.
Halaber,
gehien erabili eta alferrik galtzen den baliabideetako bat da.



Ba al zenekien...

...EAEko biztanle bakoitzak 140 litro ur kontsumitzen dituela batez beste egunean? Hau da, 51.100 litro urtean (3 edo 4 zisterna-kamioi biztanle bakoitzeko).

“Ur-hornidurari eta ur-tratamenduari buruzko inkesta”, INE, 2005

Munduko sei pertsonatik batek ez du edateko ura lortzeko aukerarik, eta edateko ez den ura kontsumitu izanak eragiten du herrialde pobreetako gaixotasunen eta heriotzen % 80.

Euskal Fundoa, Euskal Lankideen Tokiko Erakundeen Elkartea

Aplikatu URA AURREZTEKO JARRAIBIDEAK

- * Itxi kanila bizarra kentzen, platerak garbitzen edo hortzak garbitzen ari zaren bitartean.
- * Ez hartu inoiz bainurik (premia fisikoaren edo osasun-premiaren kasuan izan ezik) eta erabili dutxa beti.
- * Ontzi-garbigailua eta arropa-garbigailua beteta daudenean erabili.
- * Landareak ur birziklatuarekin ureztatu iluntzean edo eguna hastean. Eguzki-galdatan ureztatzen baditugu, ura oso erraz lurrunduko da.



- * Landareak ureztontziz ureztatu, ez mahukaz. Errazago erregulatuko dugu bota nahi dugun ur kopurua eta landare batetik bestera ez da urik alferrik galduko.
- * Aurreikuspen meteorologikoek euria egingo duela esan badute, ez garbitu autoa eta ez ureztatu landareak.

Ur guztia ez da ohitura txarreatatik alferrik galtzen, ur horretako asko instalazioak ez zaintzeagatik galtzen da.

Eduki INSTALAZIOAK BALDINTZA ONETAN

- * Berrikusi hodian eta tutuerien zigilatzeak.
- * Jarri aparatu errazak ura erregulatzeko:
 - Aginte bakarreko txorrotak kaniletan (tenperatura errazago erregulatzeko).
 - Kanilen muturrean egurasbideak (Ur gutxiago erabiltzen dute, baina indar berarekin).
 - Gailuak tangetan (beharrezkoa baino ur gehiago ez erabiltzeko).

Etxean aplika daitezkeen teknologiei buruzko ideia gehiago honako helbide honetan:

www.eraecologica.org/revista_04/ahorrar_agua.htm

Urak bere bidea jarraitzen du gure etxeetan erabili ondoren. Baldintzarik hoberenetan itzultzea ez da higiene-kontua soilik, ingurumena errespetatzeko modu bat da.


Itzuli ura GARBI

- * Ez bota hondakin toxikorik hustubideetatik.
- * Erabili detergente, xaboi, lixiba eta abar biodegradagarriak.
- * Ez bota inoiz hondakinik komunontzitik.

ENERGIA, bizi-korrontea

Gizartearen aurrerapenak energia-eskaera berriak ere ekarri ditu.

Munduan kontsumitzen den energia asko eta asko etxeko erabileragatik da



Aplikatu ENERGIA AURREZTEKO JARRAIBIDEAK

- * Erabili argi naturala ahal duzun guztietan.
- * Argitasuna dagoenean eduki pertsianak eta gortinak irekita.
- * Erabili kontsumo txikiko bonbillak.
- * Itzali erabiltzen ari ez zaren argiak eta aparatu elektrikoak.
- * Ez utzi piztuta telebistaren stand-by edo egonean egoera.
- * Ahalegindu hortzak garbitzeko eskuila elektrikorik ez erabiltzen.
- * Hormetan kolore argiak erabili, argi gutxiago behar izateko.
- * Garbitu hozkailuaren eta izozkailuaren hondoak, eta ez ireki behin eta berriz horien atea. Hozteko gainesfortzuek energia-kontsumoa handitzea eragiten dute.

Zure etxeko energia-kontsumoa kalkulatzeko:

Energia-kontsumoaren testa (Ikasgela Didaktikoa)

www.eve.es

Guk erabiltzen dugun elektrizitatea,
neurri handi batean,
berriztagarriak ez diren energietatik dator.

Aukera ezazu ENERGIA BERRIZTAGARRIAK erabiltzea

- * Elektrizitatea hornitzen digun konpainiarekin kontrata dezakegu kontsumitzen dugun energiaren % 100 energia berriztagarriaren iturriek sortzea.
- * Gure etxebizitzaren kanpoaldean lekua badugu, energia kantitate txikiak sortuko dituzten eguzki-plakak edo haize-errotak txikiak jar ditzakegu.



Ba al zenekien...

...ERAIKIGARRITASUN IRAUNKORRAK energia-eraginkortasuna areagotu dezakeela eta beren iraunaldian (eraikuntzarako materialak eta osagaiak lantzeko lehengaiak erauztetik hasita eraikinak eraitsi eta haien materialak balioztatu edo zabortegi batean uzten dituzten arte) eraikinek izango dituzten ingurumen-inpaktuak murriztu ditzakeela, eta, horrela, aldaketa klimatikoaren aurka egiten dela benetan?

“Etxebizitzaren eraikigarritasun iraunkorrari buruzko gida”, Eusko Jaurlaritzaren

BALIABIDE ARKITEKTONIKOAK energia aurrezteko

- * Jarri leiho bikoitzak barruko tenperatura ez galtzeko.
- * Jarri toloak leihoetan eta balkoietan.
- * Zigilatu ondo atea korronterik ez izateko.
- * Leihoak eta hormak zure klimatologia kontuan hartuta orientatu.
- * Jarri plaka termikoak etxeko ura berotzeko.

Zure etxebizitzaren maila bioklimatikoaren ebaluazioa egiteko:
www.casabioclimatica.com

GARRAIOA modu arduratsuan erabiltzea, ibilgailua iraunkortasunera bideratuta

Biztanleria hiri-inguruneetan hazteak eragin du garraioaren erabilera ere handitzea



Ba al zenekien...

...EAEn ia norberaren ibilgailu bat dugula bi biztanle bakoitzeko eta egunean 6.087.600 joan-etorri egiten direla?

“Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunari buruzko azterlana”, 2007

Garraioak bizi-kalitatea handitzen du,
baina, halaber, kutsaduraren iturri
handienetako bat da

- ✓ CO2-ren isurketa handiak, Lurraren berotze globala eta berotegi-efektua eragiten dutenak.
- ✓ Euri azidoa eragiten duen nitrogeno oxidoen isuria.



Ba al zenekien...

...1990. urtetik aurrera, CO2-ren isurketak ia % 85 hazi direla?

“Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumoari buruzko Euskal Plana (2006-2010)”

GURE MUGIKORTASUNEAN ERANTZUKIZUNA HARTZEA

- ✱ Ahal duzun guztietan, zure bidaiak oinez egin.
- ✱ Erabili kutsagarriak ez diren garraiobideak, hala nola bizikleta.
- ✱ Erabili garraiobide publikoak.
- ✱ Partekatu autoetako bidaiak.

Azken finean, ingurumenarekiko errespetuaren, ariketaren, osasunaren eta gastu ekonomikoa murriztearen aldeko apustua egingo duzu.

Bidaia bat egiteko ibilgailu pribatua partekatzeko zerbitzua:
www.compartir.org



Ba al zenekien...

- Biztanleriaren % 16,3 soilik joaten dela lanera garraiobide publikoan.
- la % 34,7 ibilgailu pribatuan joaten dela lanera.
- Beste ibilgailu alternatibo batzuk, hala nola bizikleta, oso gutxi erabiltzen direla?

“Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumoari buruzko Euskal Plana (2006-2010)”

GARRAIO PUBLIKOA erabiltzearen abantailak

- ◆ Leku gutxiago behar du askoz **pertsona gehiago garraiatzeko.**
- ◆ **Azkarrago eta ibilgailu pribatuekiko lehenetasunez ibiltzeko** errei propioak ditu.
- ◆ **Errepide-zirkulazio gutxiagori** eragiten dio, eta, ondorioz, **kutsadura eta auto-ilara gutxiago** daude.
- ◆ **Aparkalekurik behar ez duenez** gero, denbora eta diru asko aurrezten da.
- ◆ Garraio pribatua baino **askoz seguruagoa** da.

JOAN-ETORRIA IRAUNKORRA izan dadin Euskadin

“EUSKADIKO GARRAIO PUBLIKO ETA KOLEKTIBOARI BURUZKO INFORMAZIOAREN ATARIA”

Web-orrien bilatzailea, hor EAEn barrena egin daitezkeen joan-etorriak antola daitezke, garraiatzeko modurik iraunkorrenen erabilerari lehenetasuna emanez, eta norberaren ibilgailuari erabilerara iraunkorra eman

ahal izateko beste baliabide batzuk aurkitzen lagun dezake (aparkaleku gomendatuak, ibilgailua partekatzea eta abar).

www.garraioak.ejgv.euskadi.net

Garraio publikoaren erabilera iraunkorra izateko eta EAEn dauden Bidegorrien ibilbideak zein diren jakiteko.

Joan-etorrien antolatzailea

www.nondik-nora.net

Eguneroko betebeharrak direla medio norberaren ibilgailua erabili behar badugu nahitaez, **AHALEGINAK EGIN BEHAR DITUGU**, gutxienez, **BEHAR BEZALA GIDATZEKO**.



- ◆ **Ahalik eta martxarik luzeenean eta bira txikitan gidatu** behar dugu. Zenbat eta bira gehiago, orduan eta kontsumo handiagoa; hortaz, zenbat eta lehena-go sartu goragoko martxa, orduan eta txikiagoa izango da kontsumoa.
- ◆ Zirkulazioaren **abiadura ahalik eta modurik berdinsuenean** eduki behar dugu. Bat-bateko azeleratzerik egiten ez badugu, ez dugu ez bat-bateko balaztadarik egin behar izango, ezta horien ondoriozko bira-igoerarik ere, eta horretaz gain, ez dugu erregai gehiago kontsumituko.
- ◆ 60 segundotik gorako geldialdia egingo dugula uste badugu, **motorea itzaltzea komeni da**.
- ◆ **Ez eraman beharrezkoa ez den kargarik**. Eta karga horien lekualdaketa nahitaezkoa bada, ahaleginak egin behar ditugu ibilgailu barruan garraiatzeko eta pisuak orekatuta eramateko, ekipaje-tokiak edo kanpoko elementuak saihestuz.



Ba al zenekien...

...ekipajea gaizki banatuta eramateak edo ekipajeak ekipaje-tokietan garraiatzeak erregaiaren kontsumoa % 39raino igoztea eragin dezakeela?

BEHAR BEZALA GIDATZEA

garraio pribatua modu iraunkorragoan erabiltzeko modu bat da.

Behar bezala gidatzeko jarraibideei buruzko informazio gehiagorako:

www.eve.es



MODU IRAUNKORREAN kontsumitzen ere **IKASTEN** da

**Kontsumo iraunkorraren alorrean hezten badugu,
ERRESPETUA sustatzen dugu.**

**Ingurumenarekiko errespetua eta beste herrialde batzuekiko
eta etorkizuneko belaunaldiekiko errespetua.**

Prozesu horretan, GURASOEK ETA HELDUEK, orokorrean, erantzukizun handia dute.

Zer?: Gure adingabeei erakutsi behar diegu kontsumo arduratsua egiten eta ingurumena errespetatzen duen kontsumoa egiten, gure eguneroko ekintzek ingurune naturalean, beste herrialde batzuetan eta etorkizuneko belaunaldiei begira duten eragina modu kritikoan balioetsi behar dute.

Nola?:

- Lehenik eta behin, **IZAN ZAITEZ EREDU**. Adingabeak hezi dituzten pertsonen jarduteko moduak errepikatuko dituzte etorkizunean adingabe horiek.
- Erakutsi iezaiozu **BENETAN BEHAR DUENA BAKARRIK KONTSUMITZEN**.
- **LAGUN IEZAIOTZU** gehiegizko kontsumoak zer ondorio dituen **JABETZEN**.
- Eskuratzen dituen objektuak ondo zaintzeko jarraibideak eman iezaizkiozu, objektu horien bizitza erabilgarria luzatzen erakutsiz.
- Esan iezaiozu **ZUREKIN JOATEKO DENDARA** eta erakutsi iezaiozu erosketa iraunkorragoa egiten. Esate baterako, eraman zuen poltsa (supermerkatuko plastikozko poltsa gutxiago erabiltzeko), ez erosi gehiegi enpaketatuta dauden produktuak, ez erosi erabili eta botatzeko produkturik, irakurri etiketak (bilatu ingurumena errespetatzen duten produktuak)...
- Ohitu ezazu **ZABORRIK EZ SORTZERA**.
- Erakutsi iezaizkiozu objektuak **BERRIZ ERABILTZEKO** aukerak. **SORMENA** sustatzeko modu bat da.
- Ohitu ezazu **ZABORRA BEREIZTERA** eta dagokion tokian uzten **BIRZIKLATZEKO**. Lagun iezaiozu hondakinak biltzeko zentroetara.
- **HEZI EZAZU HONAKO BALIO HAUEK OINARRI HARTUTA**: errespetua, elkartasuna, askatasuna eta abar; era horretan, gure inguruneke ondasunak eta baliabideak erabiltzeari dagokionez erabaki ardurasuak hartzen lagunduko diozu.